

ISAD(G) deskribapen proposamena, funts mailan

1. Identitate aipamenaren atala

1.1. Erreferentzia kodea:

1.2. Izenburua:

Bilboko Nautika Eskola zaharraren funtsa

1.3. Datak:

1913-1994

1.4. Deskribapen maila:

Funtsa

1.5. Luzera eta euskarria:

Mila unitate inguruko funtsa da, artxibo kaxak, karpetak, liburuak eta paper sortak barne.

2. Inguruabarren atala

2.1. Egilea/ekoizlea:

Indarrean egon zen aldiari hainbat alditan aldatu zituen antolamendua, mendekotasuna eta izena:

- Bilboko Nautika Eskola (1740-1915)
- Bilboko Nautika Eskola Ofiziala (1915-1980)
- Bilboko Itsasketa Zibileko Goi Eskola (1980-1994)

2.2. Erakundearen historia:

Egungo zentroa 1740an sortu zen Bilboko Nautika Eskolaren ondorengo zuzena da. Eskola hura Bilboko Udalaren, Bilboko kontsulatuaren eta Bizkaiko jaurreriaren Aldundi Nagusiaren arteko lankidetzaren emaitza izan zen, eta merkataritzako ontzien pilotuak prestatzea zuen xede. Ezin ukatuzkoa da eskola hori sortu izana aurrekari bat izan zela beste hiri batzuetako merkataritza batzorde eta kontsulatuentzako, hala bada, Bilbori dagokio estatuko lehen nautika eskola, horretarako propio sortua, bultzatu eta abian jartzearen ohorea.

Nautikako ikasketak modernizatzea eta bateratzea xede, 1790eko otsailaren 26an, Winthuysen Jarraibidea onartu zen. Ikastetxeen gobernantza, ikasketa planak eta azterketak arautzen zituen, lanbide titulu horri dagokionez. Garai hartan, Bilbokoa zen azterketak egiteko eta pilotuei graduak emateko ahalmena zuen nautikako bost eskola partikularretako bat. Plan hura –ikasketek bi urteko iraupena izatea eta eskola guztiak Itsasketa Ministerioaren mende egotea xedatzen zuen– 1850era egon zen indarrean.

1826ko otsailaren 20ko Errege Aginduaren bitartez, nautikako eskolak Itsasketa Ministeriotik bereizita geratu ziren. 1830ean, lehen Merkataritzako Kodea aldarrikatuta kontsulatua iraungi zenez, Bilbo hiri oso zintzo eta oso leialeko Merkataritzako Erret Batzordea eratu zen, eta haren jurisdikziopean jarraitu zuen eskolak.

1847an, Merkataritza, Ikasbide eta Obra Publikoetako Ministerioa sortuta, liskarra hasi zen ministerio berriaren eta Itsasketakoaren artean, nautikako irakaskuntzak zirela eta. Bi urtez egon ziren konpondu ezinik. Izan ere, 1826az geroztik nautikako eskolak Itsasketa Ministeriotik bereizita egon arren, ministerio horrek kontrolatzen zuen egiatan, eta, bere iritzian, itsasketa zibilaren irakaskuntza ezin zitekeen egon bere eskumenetik kanpo. Ministerio berriaren alde egin zuen ministroen kontseiluak, eta eskoletako batzuk, tartean, Bilbokoa, bigarren hezkuntzako institutuen barne geratu ziren 1847ko ekainean.

1915eko maiatzaren 28ko Errege Dekretuaren bitartez, hamabi nautikako eskola ofizial aitortu ziren, tartean, Bilbokoa.

Primo de Riveraren diktaduran, 1924ko ekainaren 6ko Dekretuarekin, berriro berregituratu ziren ikasketak, ministerio bakar baten menpe geratzeko. Nautikako eskola ofizialen kopurua murriztu egin zen (lau izango ziren aurrerantzean: Cádiz, Bartzelona, Santa Cruz Tenerifekoa eta Bilbo), eta eskolek eraikin propioak izatea bultzatu zen.

1955ean, 1953ko maiatzaren 25eko Aginduak onartutako ikasketa plana ezarri zen. 1961eko abenduaren 23an 144/1961 Legea berretsi zen eta, horri jarraikiz, nautikako ikasketak, lanbide titulua lortzekoak, erdi-mailako ikasketa tekniko izatera igaro ziren. Ondorioz, hurrengo urteetan hainbat xedapen onartu ziren nautikako irakaskuntza antolatzeko, tartean, 1964ko uztailaren 24ko 3353/1964 Dekretua, 1966-1967 ikasturtean ezarri zen ikasketa plan berria xedatzekoa.

1972ko ekainaren 30eko 1772/1972 Dekretuaren bitartez, beharrezkoa zen UBI gainditzea nautikako ikasketak egin ahal izateko, eta 1975eko ekainaren 26ko 1439/1975 Dekretua onartuta, unibertsitate ikasketekin parekatu ziren. Xedapen horrekin, irakaskuntza horiek bi buruko agintearen pean geratu ziren ostera ere; izan ere, ikasketa plan berrien onarpena Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren mende geratu zen. Hala, 1977an, ministerio horrek, 1977ko urriaren 18ko Errege Dekretuaren bidez, eskola guztietarako azken ikasketa plan homogeneoa onartu zuen. Lehen aldiz, nautikako irakaskuntzek unibertsitate egitura izan zuten, eta ikasketa aldia bost urtekoa izatera aldatu zen. Xedapen berriak aldaketa izugarria ekarri zuen, eta plan berria eta 1964koa batera egon ziren indarrean aldi batean: 1977-1978 ikasturtean, Bilboko eskolan sartu nahi zuten ikasleek ikasketa plan bat edo bestea aukeratu zezaketen.

1980an, abenduaren 4ko Errege Dekretuaren bitartez, zentroak izena aldatu zuen: aurrerakoan, Bilboko Itsasketa Zibileko Goi Eskola. Euskal Autonomia Erkidegoari transferitu zitzaion (eta, ondorioz, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatean sartuta geratu zen) 1994ko uztailaren 12an, 289/1994, 292/1994 eta 300/1994 dekretuen bitartez. Hauek onartu zituzten hurrenez

hurren: "Leopoldo Boado" Bilboko Itsasketa Zibileko Goi Eskola UPV/EHUn sartzea; Itsasketa Zibileko Goi Ikasketen gaineko funtzioak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari transferitzea; eta EAEko administrazioaren aurrekontuan kredituak gehitzea 1994rako, itsasketa zibileko goi ikasketen arloan eskumen berriak eskuratzeagatik. 1999ko otsailaren 16tik aurrera, EHAAn argitaratutakoaren arabera, eskolak Nautika eta Itsasontzi-makineria Goi Eskola Tekniko izena hartu zuen.

2016an, UPV/EHUren zentroen bateratze prozesuaren harira, Bilboko Ingeniaritza Eskolan sartu zen.

2.3. Historia artxibistikoa:

Martxan egon den urte horietan guztietan eskolak egoitza bat baino gehiago izan du; hala, dokumentazioa hainbat fitxategitan egon da. Gaur egun, eskolaren egoitza ohian fitxategi gordailu bat dago, baina ez dago dokumentazio guztia bertan, ikasketen administrazio egoera eta kokapen desberdinengatik, hainbat zentrotan sakabanatu delako dokumentazioa, batik bat 1913 aurrekoa.

XIX. mendearen erdialdean, nautikako ikasketak bigarren hezkuntzako institutu sortu berrien barnean geratu ziren. Bilbon, egoera horrek luze jo zuen, eta, teoriarik, bananduta egon arren, praktikan, espazioak eta irakasleak berberak ziren. Nautikako Eskolak Bizkaiko Institutuan egoitza izan zuen 1925era arte. Urte horretan, San Antonio ikastetxearen egoitza ohira aldatu zen (Deustu). Horrenbestez, sortutako dokumentazio asko aipatu institutuan geratu zen. 1997an lekualdatu zen EAEko administrazio orokorraren artxibategira Miguel de Unamuno bigarren hezkuntzako institututik, Bizkaiko Institutuaren ondorengoa zenez, bertan baitzegoen gordeta.

Artxibategian dagoen dokumentazioa Nautika Eskolan gordeta dagoena baino lehenagokoa da, hau da, XIX. mendekoa (1863tik aurrerakoa), baina badago XX. mendeko dokumentaziorik ere, 1954ra artekoa, eta hutsuneekin; batik bat, espediente akademikoak eta azterketen aktak dira.

2.4. Eskuratze edo eskualdatze iturria:

Funts itxia

3. Eduki eta egitura atala

3.1. Helmena eta edukia:

Dokumentu funtsa hainbat azpifuntsez osatuta dago. Bilboko Nautika Eskola zaharraren dokumentuen azpifuntsak barnean hartzen du ikastetxean gorde den dokumentazio guztia, sorreratik 1994an UPV/EHUn sartu zenera artekoa. Bilboko Nautika Eskolaren etengabeko egoitza aldaketak, azken karlistaldian Bizkaiko Institutuak (garai hartan eskolaren egoitza zenak) nozitu zituen bonbardaketak eta beste arrazoi batzuk direla medio, dokumentazio historiko urri eta sakabanatua iritsi zaigu.

Coruña, Vigo, Gijón eta Santanderreko nautika eskolen azpifuntsei dagokienez, 1924ko ekainaren 11ko Errege Dekretuaren bidez, Bilboko Nautika Eskolak ipar-mendebaldeko nautika eskola desagerrarazien dokumentazioa jaso zuen; alegia, Coruña, Vigo, Gijón eta Santanderreko eskolena. Kasu guztietan, dokumentazioa 1924a baino lehenagokoa da.

Gainera, Bizkaiko zenbait udalerritako nautika eskolari buruzko dokumentazioa ere badago. Zehazki, Bermeo, Lekeitio, Plentzia eta Santurtzikoena.

Edukiaren deskribapen orokorra:

Bilboko Nautika Eskolaren azpifuntsa

- sarrerako azterketen erregistro liburuak (1913-1914tik 1924-1925era)
- matrikula ofizialaren erregistro liburuak (1914-1944; 1969-1974)
- matrikula ofizialen zirriborroak (1958-1965)
- matrikula libreen erregistro liburuak (1929-1944; 1952-1959; 1965-1972)
- matrikula libreen zirriborroak (1959ko irailetik 1964ko urtarrilera)
- irakasleen azterketa eskubideen eta praktika orokorren banaketa
- ikasketa planak
- azterketen aktak (1920-1936; 1937-1979)
- irakasle batzordearen aktak
- nabigazio egunerokoak (1915-1916)
- langileen espedienteak
- ikasleen espedienteak
 - o (14 kutxa) (1915-1925). Ordena alfabetikoan.
 - o (514 kutxa) (19..-1979). Espediente zenbakiaren arabera ordenan
- tituluen erregistro liburuak
- ziurtagiri akademikoak
- gutuneriako erregistro liburua (1946-1952)
- gutuneria (1917-1996)
- diru kutxaren liburuak (1954)
- sarreren liburuak
- kobrantzen liburuak
- gastuen liburuak
- batzordeen akten liburuak
- memoria akademikoak (1926-1934; 1937-1944)
- diziplina espedienteak (1941-1966)
- inbentario liburuak

Jovellanos Nautikako Institutuaren azpifuntsa. Gijón (7 kutxa)

- azterketen akten liburuak (...)
- agintariei eta partikularrei igorritako gutuneria
- ikasleen erregistroa
- ikasleen espedienteak
- sarrerako azterketa egindako ikasleen erregistro orokorra

Coruñako Nautika Eskolaren azpifuntsa (4 kutxa)

- kabotajeko patroien eta arrantzako patroien matrikula liburua (1915-1941)
- merkataritza itsasketako pilotuen matrikula liburua (1914-1931)
- ikasleen espedienteak

Vigoko Nautika Eskolaren azpifuntsa (11 kutxa)

- ikasleen espedienteak (1915--1923)
- irakasleen espedienteak (19.....)

Santanderreko Nautika Eskolaren azpifuntsa (sakabanatuta)

- ikasleen espedienteak

Bermeoko Nautika Eskolaren azpifuntsa (3 kutxa) (1921-1925)

Plentziako Nautika Eskolaren azpifuntsa (2 kutxa) (1916-1925)

Lekeitioko Nautika Eskolaren azpifuntsa (2 kutxa) (1916-1925)

Santurtziko Nautika Eskolaren azpifuntsa (2 kutxa) (1916-1925)

3.2. Balorazioari, aukeraketari eta deuseztatzeari buruzko informazioa:

Ez dira ebaluatu agiri serieak.

3.3. Sarrera berriak:

Funts itxia da.

3.4. Antolamendu sistema:

Ez dago sailkapen koadrorik.

4. Sarbide eta erabilera baldintzen atala

4.1. Sarrera baldintzak:

Agiri gehienetarako sarbidea librea da, aurretiaz kontsulta eskabidea eginda UPV/EHUko Artxibo Nagusiari. 1968tik aurrerako agirien sarbidea mugatuta dago.

4.2. Erreproduktzio baldintzak:

Ikasketa eta ikerketa helburuetarako bakarrik dago baimenduta, aurretiaz eskabidea eginda.

4.3. Materialaren hizkuntza:

Gaztelania

4.4. Ezaugarri fisikoak eta baldintza teknikoak:

Oro har, kontserbazio egoera ona da.

4.5. Deskribapen tresnak

ISAD(G) fitxa, funts mailan.

7. Deskribapen kontrolerako atala

7.1. Artxibozainaren oharra:

Miguel Ángel Santos Cresporen deskribapena.

7.2. Arauak:

ISAD (G): Norma internacional general de descripción archivística. 2. ed. Madril: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa (Kulturako Estatu Idazkaritza, 2000).

ISAAR (CPF): Norma internacional sobre los registros de autoridad de archivos relativos a instituciones, personas y familias. 2. ed. Madril: Kultura Ministerioa, 2004.

Manual de descripción multinivel. [Salamanca]: Gaztela eta Leongo Junta. Hezkuntza eta Kultura Saila, 2000.

7.3. Deskribapen data:

2018ko martxoa.